



7. ZERGA ORDENANTZA

ZERBITZU PUBLIKOEN PRESTAZIOA ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

AURKIBIDEA:

	Orriak
I. Xedapen Orokorrak 1 eta 2 artikulua	3
II. Egitate Ezargarria 3 artikulua	3 – 6
III. Subjektu Pasiboak 4etik 6ra artikulua	6 – 7
IV. Salbuespen, Gutxipen eta Hobariak 7 artikulua	7
V. Oinarri Ezargarria 8 artikulua	7
VI. Tributu Kuota 9 artikulua	7
VII. Sortzapena eta Ezarpen-Aldia 10 artikulua	7 – 8
VIII. Likidazioa eta Ordainketa 11 artikulua	8
IX. Tasen Kudeaketa eta Gestioa 12 artikulua	8
X. Azken Xedapena	8
7. ZERGA ORDENANTZAREN ERANSKINA	
I. Hirigintzako lizentziak emateko jarduera	9 – 12
II. Establezimenduak zabaldu eta aktibitatean jarduteko lizentziak emateko zerbitzua	12 – 18
III. Hiri-hondakin solidoak biltzeko eta ezabatzeko zerbitzua	18 – 21
IV. Estolderia eta isurketa kontroleko kanoaren zerbitzua	21 – 24
V. Ibilgailuak bide publikotik kentzea eta horien jagotea udal gordetegian	24 – 25
VI. Uraren udal zerbitzua ematea	25 – 27
VII. Udal hilerriko zerbitzuak ematea	27 – 28
VIII. Hiltegia eta haragiaren garraio zerbitzuen prestazioa	28



	Orriak
IX. Dokumentuak jaulkitzeko zerbitzua	28 – 29
X. Udal liburutegia	30
XI. Udalearen kirol-instalazioak erabiltzea	30 – 34
XII. Gizarte ongizateko udal arloak prestatutako zerbitzuen erabilera	34
XIII. Animaliak jasotzea	34
XIV. Azterketak egiteko eskudideak	35 – 36
XV. Azken xedapena	37

7. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udalbatzak 2016/10/27 eguneko osoko bikura erabakiz

Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/11/04 eguneko 123 zk.an

Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2016/12/21

Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/12/28 eguneko 146 zk.an

Indarrean sartu: 2017/01/01

7. ZERGA ORDENANTZA

ZERBITZU PUBLIKOEN PRESTAZIOA ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat, erabaki eta ebatzi du Tasak exijitzea era partikularrean subjektu pasiboari eragiten dieten, onura dakarkien eta beraiei egokitutako Zerbitzu Publikoak prestatu edo toki eskumeneko administrazio Aktibitateak egiteagatik Ordenantza honetan eta bere parte den zerga kuoten Eranskinean xedatutakoaren arabera.

2. Artikulua

Ordenantza hau Laudioko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. Artikulua

1.- Zergaren egitate ezargarría honako hauxe da:

Udal Administrazioak zerbitzua prestatzea eta jarduera burutzea subjektu pasiboari partikular moduan eragin, egokitu edo onura dakarkion udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko erregimenaren barruan:

a) Administrazioak bere borondatezko eskaera edo harrerakoak ez direnean. Ondorio horietarako, ez da borondatezkoa moduan kontuan hartuko administrazioaren aldetik honakoen zerbitzuen eskaera edo harrera:

Lege edo erregelamenduzko xedapenek aginduta datorrenean.

Eskatutako ondasunak, zerbitzuak edo jarduerak nahitaezkoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialerako.

b) Sektore pribatuak ez prestatu edo burutzea, indarrean dagoen araudiarekin batera sektore publikoaren aldeko erreserba xedatuta egon zein egon ez.

2.- Zehazteko, egitate zergagarriaren oinarria honako zerbitzuen prestazio edo jarduera administratiboak egitearen suposatua dira:

a) Interesdunaren eskaeraz Udal Administrazioak emandako dokumentu edo herriko agintarien eskumeneko agiriak.

b) Udalaren armariaren antzekoak erabili ahal izateko baimena plaka, patente edo beste bereizgarrietan.

c) Taxi eta gainerako alokairuzko ibilgailuen administrazio lizentziak edo baimenak ematea.

d) Landa arloa zaintzea.

e) Ahots publikoa.

f) Eskatzen duten establezimenduen zaintza eta begiraletza berezia.

g) Udal eskumeneko zerbitzuak ikuskizun publikoek, garraio nagusiek, karabana pasatzeak eta beste edozein antzeko aktibitate zerbitzu berezi horien prestazioa exijitzen dutenak.

h) Zoruaren legislazioaz eta hiri ordenazioak exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.

i) Establezimenduak zabaltzeko lizentziak ematea.

j) Ibilgailu, lurrunezko galdara, motorrak, transformagailu, igogailu, jasogailu eta antzeko beste industria eta merkataritzako aparailu eta instalazio batzuk.

k) Suteak itzali eta suteei aurre hartzeko zerbitzuak, aiurriei aurre hartzekoak, eraikuntza eta lurrera botatzeak, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babeste zerbitzuak, horien barnean sarturik, baita ere, zerbitzu hauek prestatzeko atxikitako makinaria eta ekipoko zerbitzuaren mantentzea eta erabilera lagatzea, hala nola, esku-eskailerak, motoponp-ak, txalupak, e.a.

l) Ikuskapen sanitarioko zerbitzuak, analisi kimikoak, bakteriologiakoak eta izaera berdineko beste edozein eta, oro har, laborategien zerbitzuak edo Toki Erakundearen menpeko osasuna eta higie-nearekiko zerbitzuak beste edozein establezimendutan.

m) Prebentziozko sanitate zerbitzuak, desinfekzio, intsektuak kendu, arratoiak galdu eta etxeko helbidean edo enkarguz prestatutako osasun publikorako germen kaltegarri hedatzaile edo kutsagarriak dituzten mota guztietako materia eta produktuak suntsitu eta desegitea.

- n) Ospitale, klinika edo osasun-etxe mediku-kirurgiako, psikiatriko eta berezietan, kontsultategi, errekuperazio eta errehabilitazio zentroetan prestatutako asistentzia eta egonaldiak, anbulantzia sanitario eta antzekoen zerbitzuak, eta gainera Toki Erakundeen establezimendu ongintza eta asistentziazkoetan, nahiz eta gastu horiek edozein izaerako beste erakunderen batek ordaindu behar izana izan.
- ñ) Nagusi eta adinekoentzako etxe eta egoitzetan, haurtzaindegietan, aterpetxe eta antzeko izaerako beste establezimendu batzutan prestatutako asistentziak eta egonaldiak.
- o) Bainu-etxe, dutxa, igerileku, kirol instalazio eta antzeko beste zerbitzu batzuk.
- p) Herriko kanposantua, hildakoen garraioa eta herri izaerako beste hileta zerbitzu batzuk.
- q) Toki Erakundeen titularitatekoan den zerbitzuko tutueriak, hari eramaileak eta kableak zutabeetan edo galerietan ipintzea.
- r) Estolderia zerbitzuak, eta hondakin uren tratamendua eta arazketa, barne sarturik dagoelarik norbanakoen jabetzapeko estolden zaintza eta begiraletza berezia.
- s) Herriko hondakin solidoen bilketa, tratamendua eta desegitea, putzu beltzen hustuketa eta norbanakoen jabetzapeko kaleen garbiketa.
- t) Ura, gasa, argindarra eta beste hornidura publiko batzuen banaketa, horietako haritzak lotzeko eskubideak barne harturik, eta kontagailu eta antzeko instalazioen kolokazioa eta erabilpena zerbitzu edo hornidura horiek Toki Erakundeek prestatuak direnean.
- u) Hiltegia, loja eta azoka zerbitzuak, eta, baita ere, derrigor egin beharko balitz, haragi garraioa; eta hornidura arloko ikuskapen zerbitzuak, pisuak eta neurriak hartzeko gailu eta tresnen erabilera barne sartuta dagoelarik.
- v) Toki Erakundeetako irakaskuntza establezimenduetako irakaskuntza berezituak.
- w) Museo, erakusketa, liburutegi, monumentu historiko edo artistiko, parke zoologiko edo beste antzeko zentro edo leku batzuetarako bisitaldiak.
- x) Iragarkiak erakusteko zutabe, kartel eta herriko beste antzeko instalazio batzuen erabilera.
- y) Herritarren eskaeraz egindako bide publikoetan harea botatzea.
- z) Herriko trafikoaren erregulazio eta kontroleko jarduera berebizikoak, gauzatzea ibilgailuen zirkulazioa errazagoa egitera bideratutakoak, ohiko seinalizazio bidez egindakoez bestelakoak eta Udaltzaingoa aldetik trafikoaren erregulazioa:

Jarduera administratiboak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola edo berari dagokiola ulertuko da, subjektu pasiboak berak zuzenean edo zeharka sortua izan denean bere egite edo ez egiteek Udala behartzen baldin badute bere arioz eta ofizioz segurtasuna,

osasuna, herritarrentzako hornidura orokorra edo hirigintza arlokoak, edo beste gainerako edozein jarduera edo zerbitzu prestatzera.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

4. Artikulua

1. Tasa hauen subjektu pasiboak badira, zergapeko edo zergadunen kontzeptuan, Arabako Lurralde Historikoaren Zerga arloko Foru Arau Nagusiko 35. artikuluko 3. idatzi-zatian aipatzen dituen pertsona Fisikoak, Juridikoak eta Erakundeak, Ordenantzako honetako 3. artikuluan aurreikusitako kasuekin eta horien arabera, Laudio Udalak prestatzen dituen edo egiten dituen tokiko edo herriko zerbitzuak edo aktibitateak eskatzen dituztenak, horien onuradunak direnak edo horiek eraginda suertatzen direnak.

2. Zergadunaren edo zergapekoaren ordezeko subjektu pasiboen izaera edukiko dute:

a) Etxebizitza edo lokalak okupatzen dituztenei hobariren bat dakarkien zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeak izango dira, kasuan kasuko, hainbanatu ahal izango dituztelarik kuotak dagozkien onuradunengan.

b) Lur zorua eta ordenazio urbanoari buruzko araudian aurreikusitako lizentziak emateagatik ezarritako tasak, eraikitzaileak eta obra kontratatzaileak.

c) Suteak itzali eta suteei aurre hartzeko zerbitzuak, aiurriei aurre hartzekoak, eraikuntza eta lurrera botatzeak, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babeste zerbitzuak, horien barnean sarturik, baita ere, zerbitzu hauek prestatzeko atxikitako makinaria eta ekipoko zerbitzuaren mantentzeagatik ezarritako tasak, arriskua aseguratzeko erakunde edo sozietateak.

5. Artikulua

Tasak ordaintzera obligatuta daude hauek:

a) Norbanakoaren eskaeraz gauzatutako zerbitzu edo aktibitateak, eskatzaileak.

b) Norbanakoaren eskaerarik gabe gauzatutako zerbitzu edo aktibitateak, baina norbanakoaren jarduerak, aktuzioak edo omisioak motibatuta dutenean, aktu-azio edo omisio horien egilea.

6. Artikulua

Ordenantza honen ondorioz sortutako tributu zorren erantzuleak izango dira, subjektu pasiboarekin batera, Tarifen aplikazioko arauetan kasu bakoitzerako aipatzen diren pertsonak, ordenantza honen eranskinean azaltzen diren bezala.

IV. SALBUESPEN, GUTXIPEN ETA ONURA EDO HOBARIAK

7. Artikulua

Salbuespenak, gutxipenak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea Udal Ogasunari ezargarriak zaizkio xedapen orokorretan edo Ordenantza honetako Eranskineko epigrafe ezberdinetan ebatziko denari zorrozki lotuta egingo da.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua

Zerbitzua materializatu den unitate bakoitza izango da oinarri ezargarria, eranskinean dauden tarifa bakoitzerako zehaztasunen arabera.

VI. TRIBUTU KUOTA

9. Artikulua

Eranskinean erabakitakoaren arabera, tributu kuota izango da tarifa bat aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, horretarako seinalatutako zenbateko finkoa edo prozedura bien baterako aplikazioaren ondoriozko zenbatekoa.

VII. SORTZAPENA ETA EZARPEN-ALDIA

10. Artikulua

Tasa ordaindu beharra sortuko da zerbitzuaren edo aktibitatea jardueraren prestazioa hasten denean, Tasa horren zenbateko guztia edo zati batena ordainaraztea eta gordailatzea exijitzeko aukeraren kalte barik.

Tasaren izaera materialak aldioro ordaindu beharra exijitzen duenean eta Ordenantza honetako dagokion eranskinean horrela finkatuta geratuko denean, tasa ordaindu beharra urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da eta urte natural osoko ezarpen-aldia izango du, zerbitzu edo aktibitatea erabiltzen hasiera edo uzte kasuetan izan ezik. Kasu horietan, ezarpen-aldia egoera horretara doitu beharko da dagokion kuotaren hainbanaketaz, dagokion epigrafean xedatutako zehaztasunen arabera.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. Artikulua

Laudioko Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa praktikatuko du, likidatutako zenbatekoa ordaindu beharko delarik esku-dirutan tarifen arabera ezarrita dauden ordainketa egiteko arau partikularren arabera.

Guzti hori, tasen kobrantza auto likidazio erregimenean exijitu ahal izatearen kalte barik.

Subjektu pasiboari ezin lepora zaizkion kausengatik, zerbitzu publikoa edo aktibitate administratiboa ez bada prestatzen edo ez bada gauzatzen, dagokion zenbatekoa bueltatu beharra izango da derrigor.

IX. TASEN KUDEAKETA ETA GESTIOA

12. Artikulua

Ordenantza honetan araututako Tasen likidazioa, erreka-azioa eta ikuskapenari dagokion guztian, zein kasuan kasuko arau-hauste tributarioen kalifikazio eta isunen zehaztapenerako Arabako Lurralde Historikoko Tributuen Foru Arau Orokorrean eta Udal honetako Zerga Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikagarria.

X. AZKEN XEDAPENA

Zerbitzu Publikoen Prestazio eta Aktibitateak Egiteagatiko Tasak arautzen dituen honako Ordenantza Fiskala eta jarraian doan Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2016ko urriaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 21 egunean. Indarrean jarriko da 2017ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Alkate-udalburua,

Idazkaria,

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M^a Aranzazu Lili Salazar

ERANSKINA

ZERBITZU PUBLIKOEN PRESTAZIOA ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEKO JARDUERA

OBJEKTUA.-

Ordaindu behar honen xedea dira hirigintza arloko Lege eta Arauen aurreikuspenetan, Eraikuntza arloko Ordenantzak eta eraikuntza, obra eta zoruren eta eraikinen erabilera arloan aplikagarriak diren gainerako xedapenetan oinarrituta udalaren alde aurretiko lizentzia behar duen edozein egintza egin ahal izateko baimenak ematea.

TARIFAK.-

Ondoren doazen epigrafeetan erabakitakoari lotutakoak izan beharko dira. Hala eta guztiz ere, ondoriozko kuota ezin izango da izan sekula ez eta inola 12,12 euro baino gutxiago, gutxienezko kuota minimoaren kontzeptuan.

1. Epigrafea.-

Oin berriko obretako eta egiten ari diren obren hedapeneko lizentziak, egiturari eragiten dioten kanpo aldean eta barru aldeko aldaketa edo erreformako, hau da, era eta mota guztietako eraikuntza, eraikitze eta instalazioetako barru aldeko banaketan eta distribuzioan eragina duten aldaketako eta berrikuntzako obretako lizentziak; propaganda karteldegiak, iragarpen-taulak, plakak, errotuluak, e.a. ipintzeko lizentziak; olanak, aterpeak eta antzekoak ipintzeko lizentziak baldin badira:

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zergaren oinarri ezargarriaren % 0,26 izango da.

A) Kuotaren % 100 hobaria izango dute etxebizitza sozialen araubide juridiko eta ekonomikoaren menpean egindako etxebizitzaren sustapenak, beti eta Arabako Foru Aldundiak Foru Arau bidez baimentzen edo arautzen badu hobari hori zentzu berdinean Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan.

B)

1.- Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza kasuan, Laudioko Udalak parte eta esku hartzen badu eta Eusko Jaurlaritzarekin dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatu badu, alde aurretiko ildo horretatik hartu behar den erabakian oinarria hartuta, zerga-tasa eta oinarria % 0,14 izango da.

2.- Etxebizitzaren kanpo aldeko elementuak birgaitzeko eta konpontzeko (fatxadak, teilatuak, e.a.) Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzetara lotutako etxebizitza eta tradiziozko baserrien eraikinetako obren kasuan, zerga-tasa eta oinarria % 0,14 izango da.

3.- Babes ofizialeko erregimeneko etxebizitzak eraikitzeko, sustatzaile eta promotorea edonor izanik, zerga-tasa eta oinarria % 0,14 izango da.

4.- Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzetara lotutako etxebizitza eraikinetan arkitekturazko oztupoak ezabatu eta igogailuak ipintzeko obren kasuan, zerga-tasa eta oinarria % 0,14 izango da.

5.- Merkatalgune txiki, denda txiki, txikizkako salmenta leku eta antzerakoetan jarduten duten merkataritza aretoak eraberritzeko lanen kasuan, Merkataritza Biziberritzeko Plana PERCO izena duenak, baldin eta Eusko Jaurlaritzak onartzen badu eta PERCO hori indarrean dagoen bitartean, zerga-tipoa, tasa edo oinarria % 0,14 izango da.

Jakina, kasu guztietan, onurara lortzeko alde aurretik interesdunak eskatu egin behar du.

C) % 90eko hobaria izango dute, batetik, % 65eko minusbalioa edo handiagoa duten ezinduek, eta bestetik, ezinduak izan ala ez, 65 urteko edo gehiagoko pertsonen egindako irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazteko eraikuntza, instalazio edo obretan. Hobari hori ez da aplikatuko igogailua ipintzeko kasuetan, izan ere, horrek badu bere legegintza artikuluko honetako B) 4. idatzi-zatian.

D) Latorro auzoan merkataritza aretoak ipintzeko hirigintzako lizentziak ematearen kasuan, auzo honetako merkatariek Ekonomia Jardueren gaineko Zergan % 15 kenketa eta onura aitortuta eta emanda daukatenez, portzentaia berdinean gutxituko dugu tarifa.

E) Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziko (PERCO barruko) onurak eta hobariak ematen zaizkien obra eta lanek, Tasa honetan % 50 onura eta kenketa izango dute.

2. Epigrafea.-

Eraikuntzen lehen erabilera edo okupazio lizentziak edozein erabilerarako, eraikitako metro karratu bakoitzeko 0,19 euroko tasa ordainduko dute.

3. Epigrafea.-

Eraikinen erabilera aldatzeko lizentziak. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari dagokion kuotako % 13 ordaindu beharko da.

4. Epigrafea.-

Hurre-hurreneko aurria adierazten duten kasuak kenduta, eraispén, lurrera bota edo eraikuntzak erauzteko lizentziak. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zergaren oinarri ezargariaren gaineko % 2,7a.

5. Epigrafea.-

Lurren mugimenduak, hala nola lur erauzketa, berdinketa, indusketa, betelana, e.a.ko lizentziak. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari dagokion kuotako % 13 ordaindu beharko da.

6. Epigrafea.-

Lizentzia behar duten gainontzeko egintzak direla eta, Eraikuntzari buruzko Udal Ordenantzen arabera ondorengo tarifen arabera ordainduko dira:

1. Hesiak, aldamiok, apeamenduak eta puntalamenduak nahiz ura, gasa, argindarra eta antzekoen banaketa sareen instalaziorako zangak eta erretenak zabaltzea: 1,83 euro, metro lineal edo zati bakoitzeko, gutxienezko kuota 61,81 euro izanik.
2. Salmenta edo zerbitzu makina automatikoak: 50,95 euro bakoitzeko.
3. Argi indarreko transformagailuen instalazioak, lehen epigrafean aurreikusitakoarekin batera obra zibilari dagokion oinarri tipoa aplikatzearen ondoriozko kuotaz gainera, honako hauek:

	Euro
- 200 kw.tara arteko transformagailuak	151,54
- 200 kw.-500 kw.tara arteko transformagailuak	509,08
- 500 kw.tik gorakoak	763,51

4. Karburante edo erregai likido edo gaseosen biltegien instalazioak, lehen epigrafearen aplikazioan exijituko den kuotaz gainera, obra zibilak kasuan kasuko izango duen kostuaren arabera ordaindu beharko da: 18,03 euro/metro kubiko bakoitzeko.
5. Erabilera pribatu edo publikora zuzendutako urbanizazioak oro har (bideak, aparkalekuak, lorategiak, kirola egiteko eta jolaseko zonak: 1. epigrafeko tarifa aplikatuko da.

APLIKAZIO ARAUAK.-

Lizentzia iraungiak birgai eta errehabilita daitezzen, egiteko falta den obra-zatiagatik tasa honen likidazio objektua izango da formaz eta kuantuaz hasierakoa eta lehenengo lizentzia izango balitz bezala.

Lizentzia bat amaitu eta iraungitzat hartzeak ez dio eskubiderik ematen titularrari likidatu zen tasako zatiren bat bueltatu edo kentzeko.

II. ESTABLEZIMENDUAK ZABALDU ETA AKTIBITATEAN JARDUTEKO LIZENTZIAK EMATEKO ZERBITZUA

1.- Tasa honen objektua eta xedea da zerbitzu tekniko eta administratiboen prestazioa nahitaezkoak eta ezinbestekoak diren jarduera- eta zabaltze-lizentziak eman aurretik establezimenduen edo lanbide, merkataritza edo industria izaerako jarduerak garatzen diren lokal, areto edo instalazioen eta horien osagarri edo laguntzazkoak diren aretoak edo horiekin harremana izanik.

Halaber, tasaren objektua izango da aldez aurretiko komunikazioa eta erantzunkizundun aitortpen arduratsua egitearen mende ipinitako establezimenduak zabaldu osteko ondorengo kontroleko udalaren jarduera.

2.- Negozio establezimendu, instalazio edo areto moduan honako hauek ulertu beharko dira:

- a) Ohiko merkataritza xedea duten establezimendu guztiak. Ohiko izaera hori ustez betetzen ari dela ulertuko da Merkataritza Kodeko 3. artikulua aipatzen dituen kasuetan edo gauzatutako aktibitatearen trafikoaren egintzak edo objektu diren kontratuak formalizatzeko Industria Zergaren kontribuzioa ordaindu egin behar denean.
- b) Zabaldutako establezimendu batekin industria, merkataritza edo irakaskuntza jarduera burutzen ari dena.
- c) Bizimodua egiteko gai den eraikuntza oro bere lehen xedea etxebizitzarena ez denean eta, bereziki, jendearentzako zabalik egon zein itxita izan, honako xedeetarako baldin bada:

1. Kasinoak edo bazkide edo kideen jolas edo entretenimendura xederatutako zirkuluak.

2.- Apartatu honetako aurreko zenbakian seinalatutako aretoen esparru barruko dependentzia ezberdinak merkataritza edo industria ustiapenentzako xederatuta daudenean, kasinoa edo zirkuluko titularrak aparteko beste pertsona ezberdin baten kargutan, errenta, lagapen edo beste edozein tituluren forman dela.

3.- Edozein mota edo izaerako industria edo negozio egitea.

4.- Jarduera ekonomikoak egitea.

5.- Ikuskizun publikoak.

6.- Biltegi, depositu eta almaizenak.

7.- Idazgu, bulego, despatxo edo despatxo jendearentzako zabalik, non jarduera artistiko, lanbide edo irakaskuntzaren bat burutzen den dirua irabazteko asmoz.

8.- Idazgu, bulego, despatxo edo despatxo jendearentzako zabalik, non beraietan merkataritza edo industria jarduera burutzen den.

9.- Argindarraren Sozietate edo Konpainia ekoizle, transformatzaile edo banatzaileen jabetzapeko argindarreko azpi estazioak eta transformazio zentroak.

3.- Ez dira salbuespen honetara lotuta egongo honako hauek:

a) Ongintzazko Erakundeek okupatutako aretoak euren helburuak betetzeko erabiltzen dituztenean.

b) Dirua irabazteko asmorik gabeko Elkarte edo Erakundeek okupatutako aretoak.

c) Larrialdietako klinikak zerbitzuak doan prestatzen dituztenak.

d) Dirua irabazteko asmorik gabeko Mutualitate eta Bahitetxe edo Montepioek okupatutako aretoak euren probisio jarduera izaera sozialeko edo ongintzazkoa betetzeko.

4.- Aurreko zenbakian adierazi den atxikipenik ez izatea, udal administrazioak aitortuko du interesa dutenek aldeztu aurretik eskatuta.

5.- EGITATE EZARGARRIA.- Zehaztuta dago negozio-aretoak zabaltzerakoan horien funtzionamendu normalerako bete behar diren baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko gauzatutako udal jardueragatik. Zerga ordaindu beharra sortuko da derrigorreko eta arauzko lizentzia eskaera formulatzeko unean, jarduera gauzatu behar den aretoa edo establezimendua erabiltzen denetik ala derrigorreko eta arauzko lizentzia lortu izan barik funtzionamenduan dagoenetik, eta Ordenantza honetako 3. Artikuluko 2. Zenbakian ezarri eta erabakitako inguruabarren bat gertatzen denetik hasita.

Halaber, tasaren zerga egitate ezargarria da subjektu pasiboak aldeztu aurretik komunikatutako eta aitortutako betebeharren jarduera hasieraren ondorengo kontrol eta egiaztatze arloko udal jarduera teknikoa eta administratiboa, betiere egiaztatzeko eginiko jardueraren komunikazioa edo egin nahi den jarduera garatzeko eta gauzatzeko ia bat datorren hirigintzako araudian, hirigintza planeamenduan eta jarduerak gauzatzeko eraikin, areto, instalazio eta espazio libreei ezargarriak zaizkien udal ordenantzekin, betiere jarduera horiek garatzeko izapidetze hori derrigorrekoa bada, borondatez hala eskatzen duten beste batzuentzako, hala nola beste jarduera batzuen hedapen, erabilera aldaketa eta bateratze eta txertaketak.

Udal jarduera hasi daiteke subjektu pasiboaren aldez aurretiko komunikazioaren ondorioz edo komunikatuak izan ez diren jarduerak egikaritzen ari direla egiaztatzen diren kasuetan edo egindako dagokion komunikazioaren mende guztiz eta erabateko babesik gabeko jardueren ikuskatze jardunaren ondorioz.

6.- **SUBJEKTU PASIBOA.**- Burututako jarduera edo edozein negozio aretotan gauzatu nahi den aktibitateko pertsona natural edo juridiko titularrak daude behartuta ordaintzera.

7.- **TARIFA OROKORRA.**- Modu orokorrean erabaki da lizentzia eskubidea jasotzeko eskatu ahal den ordaindu beharreko kuota izatea dagokion establezimendu edo aretoak izendatuta duen Ondasun Higiezin gaineko Zergako zerga oinarriaren % 0,30 izatea, kasuan kasuko, tarifa bereziari dagokiona aplikatzearen kalterik gabe, sortzapeneko kuota legez gailenduko delarik handiena suertatzen dena.

8.- **TARIFA BEREZIAK.**-

1. Epigrafea.- Menpeko diren tailer edo fabriken egoitza lekua ez den beste leku ezberdinen batean kokatuta dauden establezimendu edo aretoek, eta beraietan sortutako salgai edo efektuen salmenta soilera xederatuta daudenek, establezimendu nagusiari Ondasun Higiezin gaineko Zergan dagokion zerga oinarriaren % 0,15 zenbatekoaren kuota berdinkidea edo baliokidea ordainduko dute.

2. Epigrafea.- Publikoarentzako itxita dauden genero edo materialen depositu edo biltegiak, hala nola erakusketako aretoak, establezimendu nagusiari dagozkionak badira eta Laudion kokatuta, establezimendu nagusiari Ondasun Higiezin gaineko Zergan dagokion zerga oinarriaren % 0,15 ordainduko dute.

Lizentziaz hornituta dauden establezimenduek okupatutako azalera eta aretoen hedapen eta handitze kasuetan, kitatuko den Tasa handitutako areto edo azalerei Ondasun Higiezin gaineko Zergan dagokien zerga oinarriaren % 0,30 izango da.

3. **Epigrafea.**-

1.- a) Banku edo bankariek, banka ordenazioko legeriak ezarritakoaren arabera bankajardueran aritzen direnek, establezimendu zentrala Laudion izateagatik, lizentzia-tasa kapital izendun eskrituratuaren arabera ordainduko dute eskala honen arabera:

	Euro
- 120.202,42 euro kapital nominal eskrituratura arte.	812,78
- 120.202,42 euro - 300.506,05 euro artekoak	1.567,78
- 300.506,05 euro - 1.202.024,21 euro artekoak	2.496,58
- 1.202.024,21 euro - 3.606.072,63 euro artekoak	4.412,29
- 3.606.072,63 euro - 9.015.181,57 euro artekoak	8.708,56
- 9.015.181,57 euro baino gehiagokoak.	11.610,27

b) Banku edo bankarien sukurtsal, agentzia, instalazio edo bulegoek, establezimendu printzipala Laudion izan edo Laudiotik kanpoan dagoenean, aurreko eskalan ezarritako % 50 gehiago ordainduko dute.

2.- Laudion egoitza duten Sozietate, Konpainia, Aseguruetako Mutua edo berraseguruetako mutuek eta erakunde horietako sukurtsal eta agentzien establezimendu zentral nagusiek, Laudion kokatuta egon zein ez, sozietate egoitza, sukurtsal, agentziari, eta abarrei izendatutako kapital sozialaren arabera ordaindu beharko dute, kuota ezin izango delarik, kapital faltagatik edo, inola ezta ere, 628,65 euro baino gutxiagokoa izan, honako eskala honen arabera ordaindu beharko da:

	Euro
- 300.506,05 euro kapitalera arte.	644,36
- 300.506,05 euro - 1.502.530,26 euro artekoak	1.217,03
- 1.502.530,26 euro baino gehiagokoak	2.496,51

3.- Ekonomi Jardueren gaineko Zergari lotu gabeko aktibitateak gauzatzen dituzten bulegoak, gai administratiboen despatxura dedikatutakoak, Erakunde Ofizialekiko harreman edo loturazko gaiak burutzen dituztenak; hala nola Ofizina Tekniko Profesionalak eta merkataritzako sozietateen egoitza, bulego, agentzia, administrazio edo ordezkartzara xederatutako aretoak, edo Ekonomi Jardueren gaineko Zergan beste subjektu pasibo batzuen ordezkartzakoak, nahiz eta areto, lokal honetako jarduerak ekonomi Jardueren gaineko Zergarik gabea izan edo salbuetsita egon, aretoan bertan Zerga horren epigrafeetako Jarduerarik ez eta aktibitaterik burutu ez eta gauzatu gabe, 352,01 euro gutxienezko kuota ordaindu beharko dute.

4.- Erakusketa establezimendu edo lokalak, artikuluen salmenta gabe, salmenta hori beste establezimendu ezberdin batzuetan gauzatzen badute, zabaltzeko lizentziaz hornituta, 186,06 euro ordaindu beharko dute.

5.- Aldi baterako ikuskizun, kirol, atsedean edo atsedenaldiak jabetza pribatuko zelai, pista edo lokaletan egiten direnean: 186,06 euro ordaindu beharko dute.

4. Epigrafea.-

Argindarraren Sozietate edo Konpainia ekoizle, transformatzaile edo/eta banatzaileei dagokienean, zabaltze eskubideei dagozkien kuotak, kilowatioen oinarriaren gaineko ondoriozkoak izango dira, eskala honen arabera:

	Euro/Kv.
- 100 kv.ra arte.	0,81
- 101 Kv.tik 500 Kv.ra arte.	0,73
- 501 Kv.tik 1.000 Kv.ra arte.	0,64
- 1.001 Kv.tik 5.000 Kv.ra arte.	0,60
- 5.001 Kv.tik 10.000 Kv.ra arte.	0,56
- 10.001 Kv.tik 20.000 Kv.ra arte.	0,52
- 20.001 Kv.tik 30.000 Kv.ra arte.	0,49

	Euro/Kv.
- 30.001 Kv.tik 40.000 Kv.ra arte.	0,45
- 40.001 Kv.tik 50.000 Kv.ra arte.	0,40
- 50.001 Kv.tik gora.	0,40

Gehienezko muga maximoa 194.828,89 euro, zenbatekoan finkatuta geratu da Udalak aholkularitzarako teknikariak kontratatu behar izateagatik.

APLIKAZIO ARAUAK.-

1. Tasaren sortzapena gertatuko da lizentzia eskaera formulatzeko unea edo, hori eskatu gabe ere, hurrengo idatzi-zatian adierazitako inguruabarren bat izatez edo egitez gertatzen denean.

Baita tasa sortzapetu eta ordaindu beharra sortuko da zerga egitatea den udal jarduera hasten denean. Eragin horietarako, aipatu den jarduera hasitakotzat joko da jarduera hasierako aldeztatik aurretiko komunikazio idatzia aurkezten den egunean.

Halaber, tasa sortzapetuko da jarduera edo instalazioa gauzatzen ari direnean ezarritako aldeztatik aurretiko komunikazioa aurkeztu izan barik edo gauzatutako jarduera komunikatutakoa ez denean eta Udalak ikuskatze jardunak burutzearen ondorioz aurkitu eta egiaztatzen bada gauzatutako aldeztatik aurretiko jarduera.

Ordaindu beharra independente sortzen da aldeztatik aurretiko komunikazio eta erantzukizundun aitortpen arduratsuen prozedurari lotutako jarduera egikaritzen den areto bakoitzerako (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, almazenak eta edozein motako dependentziak).

2.- Ordainarazpen honek ondorioak izateko, lizentziaz hornitu behar diren establezimendu edo lokala zabaltzea bezala, ondorengoak hartuko dira kontuan:

- a) Lehendabiziko instalazioak, are makinaria eta merkataritza, industria edo zerbitzu xedeetako elementuen instalazioa ere, nahiz eta martxan jarri, funtzionamendu edo zabaltze-irekitzearekin batera aldi berean etorri ez.
- b) Lokalen leku-aldatzea.
- c) Negozioen esku-aldaketa edo lagapenak eta establezimenduetako titularraren aldaketak, nahiz eta aldatu ez ezertan lokal horietan burutzen ari zen aktibitatea, indarrean dagoen araudiarekin bat etortzeko lizentzia emateko prozeduraren tramitazioa eskatzen dutenean.
- d) Aktibitate aldaketak, nahiz eta izenik, titularrik ez eta lokalik aldatu ez, indarrean dagoen araudiarekin bat etortzeko lizentzia emateko prozeduraren tramitazioa eskatzen dutenean.
- e) Jardueraren hedapenak edo handitzeak.

f) Lokalak handitzea.

3. Tasaren ordainarazpenetik salbuetsita egongo dira, baina ez dagokion lizentziaz hornitu beharraz, honako hauek:

a) Larrialdi bategatik sortutako lokaletan obrak egin behar izategatik eragindako lekualdaketak, beti eta lekualdaketa horiek aurreikusita daudenean dagokion lizentzian.

b) Nahitaezko eraispin, amiltze eta suteak direla-eta, dauden lekualdaketak, eta, baita ere, xedapen ofizial eta aginduak betetzekoak direnek.

4. Lehenengo lokaleko konponketa eta berreraiketak egindakoan, beti eta 8 hilabeteko epea igaro ez bada, lokala berriro zabaltzean, aurreko zenbakiko a) ataleko salbuespena ezarriko zaio.

5. b) atalari dagokionez, lehendabiziko lokala konpondu eta berriro eraikiari, edo lokal horren ordezkoa izango den lokala berriari salbuespena ezarriko zaio, beti eta titular jabeak lehendabiziko lokala uztegatik kalte-ordainik jaso izan ez badu.

6. Salbuespen bi horietarako baldintza komunak izango dira berriro zabalduko den lokalean jarduera berdina egitea.

7. Euren kuotetan % 100eko hobaria izango dute honako hauek:

a) Ezkontideen artean eta lehen graduko aurreko eta ondorengo arteko "Mortis causa" oinordetzagatiko jabe-aldaketak.

b) Sozietate ez anonimoetako sozietatearen izena aldatzea, bazkide edo sozio baten heriotza dela-eta.

8. Ordainarazi behar den tasaren gaineko % 50eko hobaria izango dute honako hauek:

a) Enplegua bultzatzeko herriko proiektu edo ekimen guztiak udalerrirako herri-interesekoak bezala kontuan hartzen baditu Korporazioak, gauzatu beharreko jarduera, inbertsioa edo enplegua bera sortzeko duen aurreikuspenagatik.

b) 25 urtez beherako langabetu gazte edo 25 urtez gorako heldu langabezia urtebete baino gehiago daramaten enplegu autonomoa sortzen duten enpresak.

c) Merkataritza Biziberritzeko Planaren barruko (PERCO izenekoaren barruko) hobariak eta kenketak aitortzen zaizkien establezimenduen kasuan eta suposatuan.

9. Lizentzia emateko erabakia hartuta, interesatuek lizentziari uko egin ahal izango dioten kasuetan, ordaindutako tasaren % 80a itzuliko zaie, eta alde aurretik ez badute ordaindu, likidazioaren % 20a bakarrik ordainduko dute. Era berean, emate-jakinarazpena jaso ondoren 30 egun igaro ondoren, edo 30 egun pasaturik eta emate-jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabete pasa aurretik uko egiten den kasuetan, % 50 bueltatzea edo beharrezkoa erakarriko du.

10. Iraungitza eta agortutza hartuko dira lizentziak eta horien ordaindu beharra, behin lizentzia eman hiru hilabete igarotzen badira establezimendu edo lokala zabaldu barik, edota zabaldu ondoren ixten direnean, edo 6 hilabeteko epean zehar Ekonomi Jardueren gaineko Zergan baja emanda daudenean, salbu eta planteatutako kasuek, suposatuek eta balizkoek behartzen dutenean, edo sortutako inguruabarrek eta baldintzek zabaltzea eta irekiera atzeratu edo esandako denboraldian ixtera behartzen dutenean.

11. Latiorro auzoan merkataritza aretoak ipintzeko hirigintzako lizentziak ematearen kasuan, auzo honetako merkatariek Ekonomia Jardueren gaineko Zergan % 15 kenketa eta onura aitortuta eta emanda daukatenez, portzentaia berdinean gutxituko dugu tarifa.

12. 1.- Ordenantza honetako salbuespenak eta hobariak lortu eta eskuratzeko interesa duten pertsonak Udal Administrazioari eskatu egin beharko dute, horiek eskuratzeko eskubideen inguruabarrak eta baldintzak ongi eta nahikoa egiaztatuz eta zehaztuz.

2.- "Mortis causa" izeneko salbuespenak eskuratzeko baldintzak honako hauek izango dira:

- a) Kausatzaileak jardueran aritzeko beharrezko den lizentzia egokia lortu eta dagokion salbuespena eskuratua izana izatea.
- b) Jarduera berean jarraitzen ari dela frogatu eta egiaztatzea.
- c) Kausatzaileari lizentzia eman zitzaionetik 30 urte igarota ez egotea.

III. HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ETA EZABATZEKO ZERBITZUA

OBJEKTUA.-

Tasa honen objektua eta xedea da hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren prestazioa, etxebizitzetan, aretoetan, industria eta merkataritza establezimenduetan eta bestelako higiezinetan, hondakin horien garraioa eta udal isurtegiengan tratamendua ematea; Eranskineko Tarifan sartuta dauden beste mota batzuetako hondarrak, gauzak eta hondakinak jasotzea; hori guztia, hala udalaren kudeatze zuzenaz, nola kontratista edo udal enpresa bitartez.

Prestazioa eginda dagoela ulertu eta joko da higiezina kokatuta dagoen zonaldean zabor bilketako udal zerbitzua martxan ipinita eta funtzionamenduan dagoenean.

TARIFAK.-

1. Epigrafea.- Zerbitzuaren prestazioagatik, katastro elementuari Ondasun Higiezinaren Zergaren ondorioetarako esleitutako erabileren oinarriaren arabera:

		Euro/urte/ katasro elementu
1-	Etxebizitza eta berdin kidetuak: Erabilerak: 0111, 0112, 0114, 0121, 0122, 0131, 0321, 0832, 0931 eta 0932	53,05
2-	Zinema, antzoki, kasino, klub sozial eta garajeak: Erabilerak: 0631, 0731 eta 0221	146,76
3-	Merkataritza oro har eta bulego aretoak: Erabilerak: 0411, 0311, 0312, 1021, 1022 eta 0232	146,76
4-	Elikagaien denda: Erabilerak: 0431	146,76
5-	Banku-etxe, eskola eta ikastetxeak: Erabilerak: 0331, 0332 eta 0921	197,52
6-	Kafetegiak, tabernak, supermerkatuak, diskotekak eta almaizenak, tailerrak eta bulegoak (10 langiletik behera): Erabilerak: 0722, 0432, 0622, 0211 (<10 langile), 0322 (<10 langile) eta 0231	208,65
7-	Jatetxeak, Hotelak eta Ostatuak: Erabilerak: 0721 eta 0711	208,65
8-	Almazenak eta tailerrak eta industriari lotutako bulegoak (10-75 langile bitartekoak): Erabilerak: 0211 eta 0322 (10-75 langile bitartekoak)	626,01
9-	Almazenak eta tailerrak eta industriari lotutako bulegoak (75-100 langile bitartekoak): Erabilerak: 0211 eta 0322 (75-100 langile bitartekoak)	1.251,94
